



BEIZAMAKO UDALA
(GIPUZKOA)

ESP.	2011IPLE0002
ATALA.	IDAZKARITZA
GAIA	EZOHIKO OSOKO BILKURA

2011-02-18ko EZOHIKO UDALBATZA

Beizaman, 2011ko otsailaren 18an, arratsaldeko 18:00etan, udaletxeko udalbatza-aretoan, ezohiko batzarra egin du Udalbatzak, Alkatea Ramón Gerrikagoitia Bengoetxea jauna buru duela.

Zinegotzi hauek izan dira bileran: Begoña Garmendia Vazquez andrea, Itziar Arkonada Lizarraga andrea eta Igone Arruti Olazabal andrea.

Luis Javier Oregi Iñurrieta zinegotziak ezin izan du bertaratu.

Udaleko idazkari kontu-hartzailea, Lierni Muñoa Salaverria haritu da idazkari moduan.

AZTERGAIK

1. Gaia: Azken plenoetako akten onarpena.
2. Gaia: 2011ko aurrekontu, Plantila eta RPTaren hasierako onarpena
3. Gaia: Ordenantza fiskalak
4. Gaia: Alkatetza dekretuen berri ematea.
5. Gaia: Mozioak
6. Gaia: Informazio, galdera eta erreguak

Beraz hartu beharreko erabakien azterketari ekiten zaio.

1.- AZKEN PLENOKO AKTAREN ONARPENA.

2010/12/10 eta 2011/01/03ko aktak aho batez onartu dira, aipatu delarik, hitzarmenak onartzen direnean, harturiko erabakiak aktan bertan jaso daitezela.

2.- 2011ko AURREKONTUA, PLANTILA ETA RPTAREN HASIERAKO ONARPENA

Idazkari Kontu-hartzaileak alkatearen aurrekontu proposamenaren berri eman du eta zinegotziek aho batez honakoa adostu dute:

Lehena.- 2011ko aurrekontuari hasierako onarpena ematea.

Bigarrena.- 2011ko plantila eta Lanpostu zerrendari hasierako onarpena ematea. Langileen destinoko osagarria eta osagarri espezifikoareen balorazioa egiteke dago, eta beraz egoera honetan jasoak geratuko dira, balorazio hau osoko bilkurak onartu bitarte.

Hirugarrena.- Espedientea jendea aurrean 15 eguneko epez jartzea, horretarako GAOn iragarkia jarriko delarik, epea argitarapena gerozko hurrengo egunean hasiko delarik kontatzen.



BEIZAMAKO UDALA
(GIPUZKOA)

3.- ORDENANTZA FISKALAK 2011KO LEHEN ALDAKETA.

Kontuan harturik badirela udalak eskaintzen dituen zenbait zerbitzu une honetaraino herritarrentzako kosturik ez dutenak, eta egoera horrek sortu duela udal sarrera eta gastuen arteko halako deskonpentsazio bat, udal zinegotziek aho batez 2011ko ordenantza fiskalei ondorengo aldaketak egitea onartu du, behin behineko izaerarekin onartu dituelarik:

Lehena.- Hiritar izaera duten lurren balioaren gehikuntzaren zerga arautzen duen ordenantza fiskala onartzea.

Bigarrena.- Udal bide publikoen lurzoru, zorupe edo egalkinaren erabilera pribatiboa edo aprobetxamendu berezia, hornidura zerbitzuak ustiatzen dituzten enpresen aldeko tasa onartzea.

Hirugarrena.- Udal instalakuntza erabiltzeagatikoko tasak onartzea:

+ Natur eskola gela: Egun erdia 20 €

Egun osoa 35 €

Laugarrena.- Udal zerbitzu erabilera tasak onartzea:

+ Ostiraletako ludoteka: 30 euro ikasturteko

+ Udako ludoteka: 35 euro

+ Eskulan tailerra: 27 euro hiru hilabeteko.

+ Faxe bidaltzea: 0,50 euro

+ Fotokopiak: 0,10 euro 10 orritik aurrera.

Bostgarrena.-: 30 lanegunez, jende aurrean jartzea, iragarkia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN; argitaratzen den urrengo egunetik epea kontuan harturik, alegazioak aurkezteko. Jendeari erakusteko epea igarotzen bada inolako erreklamazio edo oharpenik jaso gabe, 2011ko Ordenantza Fiskalen 1. aldaketa onartutzat joko da behin-betiko, beste erabakirik hartu behar izan gabe.



BEIZAMA KO UDALA
(GIPUZKOA)

4.- ALKATETZA DEKRETUEN BERRI EMATEA.

Idazkaritzak ez du erlazioa prestatu eta hurrengo osoko bilkurarako geratu da.

5.- MOZIOAK

Zinegotziek aho batez onartu dute UEMAK proposaturiko mozioa, Euskal Erkidego Autonomoko Erregistro Zibiletan haurrak euskaraz erregistratu ahal izateari buruzkoa.

6.- INFORMAZIO GALDERA ERREGUAK

Ez da aipamen berezirik izan eta Osoko bilkura, 18:30etan eman du amaitutzat Alkateak eta bertan azaldutakoa jaso gera dadin honakoa sinatzen dut.

Beizaman, 2011ko otsailaren 22an

Lierni Muñoa Salaverria
Idazkari Kontu-hartzailea